

PENTEKOSTE JAIAK  
PASCUA DE PENTECOSTES



**BERGARA 83**  
**EGITARAVIA - PROGRAMA**

## *Alkate Ohiaren Agurra*

Ohi denez, festa-egitarauko atariko lerro hauek, herritarrak agurtzeko erabili ohi izan ditu Alkateak betidanik; aurtengoan, nire agintealdiko lau urteak amaitu direnez, azkenagur hitz batzuez bete nahi ditut eta, une batez badere, olerkaritzat nire burua hartuz, honako gaztelaniazko hitz hauetaz laburtuko nuke nire Alkatetza-lana:

Llegó y dijo..... pero no todo lo que quiso decir  
Hizo... pero no todo lo que quiso hacer... Y se fué

Aurtengoan ere, beti bezala, festa alai, lagunkor eta paketsu batzuk igaro ditzazuela opa dizue zuen Alkate izan den eta orain, lehen bezala, Herriaren Zerbitzari den eta besarkada handi bat eskaintzen dizuen.

JOSE ANTONIO ZABALA

## ERREGE-SEMINARIOA ETA XVII GARREN MENDEKO ZIENTZIA-TOPAKETAK

Elhuyar Anaiet Wolframioaren banaketa lortu zuteneko bigarren ehunurtekoa ospatzen dugun urte hau, apartekoa dela derizkiot, ErregeSeminarioaren kondaira txiki eta garrantzitsua gogora erazteko.

Erakunde honek, hain zuzen, 1593.eko Martxoaren 29an ekin zion bere historia-ibilaldiari, Genovako Magdalena Centurion Andereak (Agustin Spinola Jaunaren alarguntsa) irakaskuntzarako Ikastegi bat sortarazteko 1.800 dukatuko diru-agintza egin zuenean ekin ere ekin zion bideari. Hala ere, dirutza eskasa zenez asmotakoak ziren lanak egiteko, Andres de Madariaga Jaunak 20.000 dukatu eman zituen arte, 1662 garrenera arte, ez zitzaien hasera eman obrei; horren ondorioz, Ikastegia eta Eliza eraiki zirelarik eta Oñatin Ikastegi bat zedukaten Jesuitek horien ardura hartu zutelarik.

Jesuitek, Bergaran, mende batez gutxi gora behera, irakaskuntza-lana egin zuten. Izen ere, 1767.eko Apirilaren 2ko gauerdiako 12etan, Miguel Jose de Olaso Alkate eta Herri-Epaile zenak, goi-agintarien esanak betez, Jesuitok herritik kanpo bidali behar izan bait zituen. Hori horrela, Ikastegia itxi zen irakaskuntza-arloan hutsune azkengabea uzten zutelarik, Humanismu-arloetan berreziki.

Garai hartan, Pirineoz handiko eta Ilustrazio izenez ezagutzen zen

Kultura-Mugimendu batek zuen izugarrizko arrakasta. Kulturaz eta diruz ongi jantxitako, erbestean beren ikasketak egindako eta Diderot eta D'Alembert-ek eratutako Enziklopedia bert-ek eratutako Enziklopedia ideiez beren buruak hornituta zituzten zaldun batzuk ziren mugimendu honen aintzindari. Gure Lurradean, berriz, pentsakera honen bultzagile eta suztatzaile, Peñafloridako Kondea, Xabier Maria Munibe eta Idiaquez Jauna izan zen.

Gizon ospetsu hau 1729.eko Urianen 23an munduratu zen Azkoitin. Toulousen Jesuitek zuten Ikastegian egin zituen bere ikasketak eta, hauke burutu ondoren, kultura-irriz beteta eta horiek gauzatzeko gogoak sututa, Euskal Herrira itzuli zen. Martin Deunaren jaioterria zein izan zitekeen, Beasain edo Bergara hain zuzen, sinkatu nahiczko auzia zela eta, Aita Santuaren erabakibidezko eta Bergararen aldeko Bula baten argitalpena ospatzeko, Bergarako Udalak antolatu zituen festa-egunetan, bildu zen Xabier Maria bere lagunekin, bere xede eta asmoak mahaijeratu eta eztaba-datzeko beroiekin. (Ez ahaz bere emaztea Bergararra zela). Hemen azaldu zien, gero "Euskal Herriaren aldeko Errege-Elkartea" izango zen Erakundea sortze-asmoa. 1764.eko Irailaren 11an, Kondeak berak eratutako elebitasunezko irri eta tamalezko antzerkia, "El Borracho burlado" izenekoa, antzestu zen Udal-letxeko arreto nagusian.

Jesuitak kanporatzea zela medio, Ikastegia hutsik eta alfer-alferrik

zegoelako, Udalak, 1768.ean, Europaren egon zuedenen antzeko Seminario bat, Estatuak czar zezala hemen eskatu zuen. Asmo hau, "Euskal herriaren aldeko Lagunen Elkarteak" bere egin, bideak eginarazi eta bere esku hartzea lortu zuen. Halaxe, 1776.eko Azaroaren 14ean, Seminario gisa, ekin zion bere irakaskuntza-ihardunari Ikastegia zenak. Zabaltze-eguna ospakizun argiz eta zaratatsuz egin zen, Fisika eta Kimika, Mineralogia eta Metalurgia-arloei buruzko irakaskuntzak ematen zituelarik.

Seminarioko lehen Zuzendaria Peñafloridako Kondea izan zen. Ardurra hori zuela eta, bere familia eta guzti Bergarara etorri zen, egoitza "Zabala-Ondartza" etxebikainean, gaur gehienbat "Txantxiku" izenez ezagutzen den etxearen, jartzen zuela.

Gezurra dirudi, sinestezina da, hain epe txikian, Europa osoan zehar ezagunak eta ospetsuak ziren irakasleak Bergarara ekartzea egin zitekeenik, bertan zientzia-mailako topaketa harrigarriak egitea lortu zutelarik. Lantxo honek laburra izan behar duenez, famatuuenak izan zirenak bakar-bakarrik aipatuko ditut denborazko hurrenez-hurren.

*Luis Josepf Proust:* Jakintsu hau 1778.ean akuratu zuten, 24 urte zituela. Parisko Rouelle ikerlariarekin egin zituen kimika-ikasketak. Ziur aski, Maisu horrek berak aurkeztuta, onartu zuten Euskal Herriaren aldeko Lagunen Elkarteko kideek. Luis Josepf Proust-en eraginez edo, honek berak, zehazkiago esateko, ezartzen du "Zehaztutako

zernolakoen Legea" izenezko kimikarako oinarritzko araua. Arau hau era honetan laburtzen du: "Askartariko zer bat osatzeko, bi zer nahasten direnean, aldaezinezko pi-suaren heinean elkartzen dira."

Ia aldi berean, Paristik eta 24 urterekin hau ere, han irakaskuntzan lan egin ondoren, *Pierre Francois Chavaneau* Jauna etorri zen Bergarara. Lan askoren ondorioz eta talde-lanaren fruitu gisa, nahiko Platino eta arrunt garbia lortu zuen. Baina gutxik ezagutzen dutena, honako hau da: Seguru asko "Hamaketakoa" delako horrekiko zaletasunagatik edo, "Aplicación química al caldo de los enfermos" izenburuz eta 1788.ean, argitaratu zuen idazkia, hain zuzen. Idazki honen edukina, laburki azaltzeko, hauxe litzateke: Geure-geurea den haragisalda eratzeko bideak, "Caldo Limpio" izenez ere ezaguna dena. Manuel Laborde nire lagun Jaunaren bidez datorridan berri hau, "Shalda Chavaneau" izenez sar daiteke euskal janaritegian.

Hauet, guzti hauet, Euskal Herriko Lagunek "Zabala Dorre" izeneko etxearen ezarri zuten "Laboratorium Chemicum"-ean gauzatu zituzten beren ikerketa-lanak. Etxe hau Bidekurutzetako 14an zegoen lekutua, eta mende honen haseran lurreratu zuten. Leku hau oso ezaguna izan zen munduan zehar; izan ere, bertan lortu bait zen metal berri bat, Wolframio edo Tungsteno izenekoa eta Wolframitaren azterketa edo tratamenduik sortarazia. Topaketa hau *Fausto eta Juan*

*Jose Elhuyar eta Zubice* Anaiet lortu zuten. Biak Logroñon jaioak, Euskal Iparraldeko guraso batzuren gandik. Beren lehen ikasketak, Arabako Errioxako Cyon-en egin zituzten eta goi-mailako ikasketak Parisen, 1770 tik 1776 era. Ikerketa-ikasketak bertan burutu zituzten, Freiberg-eko Metalurgia-Institutoan, Alemaniako eta Suediako irakasleen laguntzapecan, Azkenik, 1782.eko urteko bigarren erdialdian, Bergarara etorri ziren, bertan irakasketa eta ikerketa-lanei jarraitzen zietelarik.

Aipamen-zerrenda honi amaiera emateko, *Andres Nicolaus Thunberg*, Uppsalako (Suedia) Unibertsitateko irakasle bat, aipatuko dugu. Unibertsitate hau, garai hartan, Europako aurreratuenetakotzat jotsen zen. Irakasle jakintsu eta izen handiko hau 1788.eko urtean, 41 urterekin, Bergararatzen zen. Orain aipatzen dugun zientzia gizon hau, orain arte aipatutakoentzat, adintsuena zen, Elhuyar Anaiet, topaketa egin zutenean, 24 eta 25 urte zituzten eta. Chavaneau-k hasitako ikerketa-lanari jarraituz, Bergarako Saiakategian, Thunberg-ek, platino soil-soila zen kuilarakada bat metal ateratzea lortu zuen. Inork ordura arte lortu ez zuena, hain zuen..! Estocolmoko Rismusseum-en egon zen jarria herri-ikuskari, 1914era arte. Dirudienez, urte honetan, harrapatu egin zuten, edo behintzat, han desagertu zen.

Thunberg-ek bere eskandinabiarr lagunekin izan zituen idatzizko harremanetik dakigu, Berga-

rako Laborategia Uppsalako Saia-kategia baino hobea zela, hau Europako aurreratuenetakotzat jotsen bazen ere; Bergarako bidaian jasan behar izan zituen gorabeherak, eta euskara eta gaztelania ez jakiteak zekarzkion eragozpenak ere aletzen dizkigu bere idazkietan. Estocolmoko udak dakarzkiola irudimenera, hemengo klimak; apaizekiko begirune handia duela jendeak eta oso estimatuak dituztela; bertako biztanleak maitakorrak, txukunak eta langileak direla; gizon eta emakumeek era berean egiten dutela lan; ez dela ezagutzen lapurketarik edo erailketarik... Lerro hauak irakur ditzanak, orduko bizieraren hantsia nabarituko du bere baitan. Hobeto bizitzeak, jatortasuna kentzen edo gutxitzen ote digu ba..?

Seminario honetan, barriu-ikasle gisa, 130 ikaslek edo egiten zituzten beren ikasketak. Bertan ikasketak soilki egiten zituztenak, 80 edo, izango ziren. Inolaz ere, ongi horri-nituak irretzen zuten Ikastegi hone-tatik, horietariko nahikok ospe hedatua lortu bait zuten, batzuk gore-neko mailako lantokiak eskuratu zituztelarik.

Aita Isla-k gaiztakeriz edo azpilanez, “Caballeritos edo Zaldun-txoak” izena ematen dien gizon hauei buruzko lanari, tokirik ezak behartuta, amaiera ematera noakizue. Bainak jakina da, beroien lankortasunak, goranahiak, bihotzan-ditasunak eta gaitasunak eraman zuela Bergararen izena munduan zehar. Aurrekoie begiratzeak, ge-roa hobetzen lagun diezagula.

JOSE ANTONIO ZABALA UNZURRUNZAGA

## *Pentekoste plazkotako jaiak*

Berriro ere, Pentekoste-festak gainean ditugu, lehen bezalajaiak, baina ez lehen bezalakoak, oso ezberdinak benetan. Aldaketa hau ulerkaitza litzaiguke, alor guztietan eman den neurriezineko aldaketa-taren lekuko ez bagina.

Lehengo festak, gehienbat, azoka-jaiak ziren, eta hori zela medio, kaleak saltokiz eta tramankuluz betetzen ziren, herritarren eta kan-pokoien ikusmiragarri eta beroiek erosle bihur nahiezkoak. Saltoki horiek kaleetan zehar ezartzearen ohitura, autoen trafikoak ezabatu zuen, ez bait zen posible, alde batetik, saltokia-saltokiaren gain, eta bestetik, autoen harahonako azkengabea elkartzea.

Norbaitek pentsa ere pentsa lezake, gure hitzei edo lerroei dariena gehiegikera bat besterik ez dela; baina egia da eta egia hutxa eta garbia, San Antoniotik Gasparren Etxerainoko ibilbidea, jendez betetzen zela, jendea gora eta behera, jendea harantz eta honantz, bultzadaka, agurka, iskanbilaka. Eta kaleek gainezka egiten zuten, filme, zirku edo dantzaldiak amaitzen zirenean batipat.

Baieztagatzen ari naizen egia hau, egiago bihurtzen zen oraindik, Herriko Udalak akuratutako Musika-Bandak herriratzen zirenean,

*Musika-Eresbatzekin batera, jendetza handiak etortzen bait ziren, nahiz trenez, nahiz oinez, nahiz beste ibilgailu batzuz. Deba ibaiaren behe aldekoak, hau da, itsasaldekoak baziren Musika-Bandak, goiko tren-geltokian hartzen zuten lurra denek, "Inpernukan" elkartu eta bandak eguneko apropos gertatuta zedukan eresia joz, Martin Deunaren enparantzaino joaten ziren algaraz eta dantzaka. Ibaiaren goi aldekoak baziren, Hotel Lasa inguruaren elkartzen ziren eta, bestean antzera edo lehian, herri barruratzentz ziren, balkoiak eta atariak, irribarrez, harriduraz eta painueloz hornitzen zirela, elkartsunezko barru eta kanpo-pozak kaleak eta etxeak betetzen zituela.*

*Jai-giroa, goizez eta eguerdiz, neurrizko edo patxadazkoa izaten zen. Arratsaldez, zaratatsuagoa eta pizkorragoa. Gaualderako, gainerazka egiten zuen, ez bait ziren izaten alferrikakoak ardo eta pata dastaketak. Baina garaiari garaikoak, eta egunargiz edo behintzat Avemariakoakin etxerantzako bidea hartu beharra zegoen. Orduan, orduantxe sortzen ziren larriak eta hestualdiak...! Tokirik ez trenetan, autobusak zaharrak eta eskasak, oinez joatea ere gogorrazan. Hango ezinak, abiadurak, hestuasunak eta izerdi larriak...! Beste herri batzuk Bergarara etorritako auto txikiak ere izaten ziren, gutxi noski. Hauek bihotz zabala eta harkoi azaltzen zituzten beren buruak denekin; baina - arrazoizkoa...! - ahal izanez gero, neska gaztez eta lirainez, kotxeak betetzea nahiago. Betikoa...!*

*Gurregun, azoka-girorik ez dute gure festek. Gaurko saltokiak ere saltoko dire noski, baina ez azoka-saltokiak. Garai haietako ahots hozenak isildu dira eta elektra-indarrezko ahots-bideak kaleratu, haukin batera diska mérkeen hitz-jarioek gure belariak betetzen edo mintzen dituztelarik. Egun, txarangek, etengabeko eta iguina-rizko bonbo-taupadek, "gau pasa" kearrek, oreka gabeko folklore edo zerbaitek eta beste esanezinezko zerbatzuek ikusi edo entzuten ditugu festa-egunetan. Bai, ikustekoa izango litzateke, festak amaitu eta lorik sakon eta goxoenean aurkitzen direnean, zer egingo luketen gazte horiek, "zigor gailu" horretaz baliatuz, norbait kalez-kale hasiko balitz...*

*Gurregun, ditugun argibideak eduki arren ere, Espaloitik pasatzek ikara sortzen badu hainbat eta hainbat pertsonengan, zer izango ote zen garai haietan hortik igarotzea...! Pentsatzekoa da benetan. Galdezka eta ikerka ibili ere ibili naiz galdera edo arazo honen erantzuna lortu nahikrik. Eta, azkenean, noizbait, aurkitu dut irtenbidea: Udal Gauzainek, argigailuz horniturik, laguntzen zietela handikako oinezkoei, zuhaitzik jo ez zezaten edo zangoa zuloren batetan sar ez zezaten.*

*Espaloiarri buruzko berriak ematen hasi naizenez, beste honako hau ere aipagarria dela derizkio. Hara nola: Espaloaren San Antoniorantzako amaieran, bi ehun lantegi zeuden, beroietan langile ugarik beren zerbitzuak eskaintzen zituztelarik. Goiz-goizetik lantokiratzen ziren, goizeko seiretarako barruan egon behar izaten zuten, eta jakina denez, gosaldu gabe. Hori dela eta, zortziretan, lana utzi eta San Antonioko plazara edo honen ingurura joaten ziren, bertara etxekoek ekarritako gosaria dastatzera eta beren urdailak gozatzera. Ama izan-berri ziren emakumeek, hantxe ematen zieten bularra beren haurtxoei.*

*Zerupeango jantoki edo gosaritoki horretan gertatzen zena, benetan ikusgarria izango zelakoan nago. Nik neuk ez dut ezagutu, baina harrigarria izango zen noski.*

*Jantokia aipatu dugunez, eta ohargarri delakoan, eskualde hone-tako Hotel batek, irarki dotorez eta bezero izan zitezkeenei jakinarazten ziena, agertu nahi dut orain:*

*PREZIOA, sei peseta, LAUGARRENA barru.*

*GOSARIA: Teia, Txokolatea edo kafea.*

*BAZKARIA: 12etan, 13etan eta 14etan. Bi sopa, 3 lapikoko, 3 printzipio eta 3 bazkariondoko.*

*AZKARIA: Txokolatea edo gozokiak.*

*AFARIA: 20etan. Sopa, barazkiak, 3 jaki eta 3 afariondoko. Zortzi urtetatik beherako umeek: Erdi-prezioa.*

*Bigarren mailako Mahialek: Jaki eta janondorengo bat gutxiago. IGANDE ETA OSTEGUNETAN: Jaki bat gehiago. Berarizko banketak ere ematen dira.*

*Jaki-zerrenda hau ez dagokio Bergarari, eskualdekoa bada ere. Bergaran bertan, ba ziren horrelako edo antzerako jatetxeak; baina ezin eskuratu ahal izan dut, beroietako jaki-zerrendarik. Dena-dela, eta funtsean, orduko prezio eta jaki-zerrendak nolakoak ziren jakitea zaigu interesgarri.*

*Bergararrok uste izan dugu eta esan ere esan dugu behin baino gehiagotan, etxebikainek, beren garaitasunaz, herriaren bikaintasuna urritu eta etxe berriak eraikitze-lekuak gutxitzea dela eskaintzen duten abantaila bakarra. Baina, orain, gure pentsaera beste modu batetako da, aldatzten doa, ikusi ere, ikusten ari bait garaez dutela herriaren ederkasuna itzaltzen, ez eta eraikintza berriak egiteko lurra murritzten ere. Horretarako, lantxo batzak eta egokiketa berezi batzuk gauzatzea nahikoa dela pentsatzera heldu gara.*

Bergarako Herri-Udalaren jokabide jator baten ondorioz, aurrez aipatutako etxebikain horietariko lau, beren funtsak barne, erosiditu. Honako hauek dira:

1.- **GABIRIAKO DORREA**: Aintzina-aintzinatik, Oinaztarren tali-dearena zen. García Ibañez-en bigarren semea zen Lopez García de Ozaeta Jauna izan zen Dorre honen eta bere lurren erosle eta aintzindari. Jaun honek berak, era berean, eraiki zuen Ozaetako lehen Dorrea. 1268 garren urtean, Nafarroako Erregeri laguntzera joan ziren gudarien Kapitaina izan zen.

2.- **Irizarren DORRETXEA**: Lehen karlista gudateari amaiera eman zion 1839.eko Itunea izenpetu zen bertan. Orain-oraingoz, Udalarteko eta Lehen Mailako Auzietarako zerbitzuak jarri dira bertan.

3.- **ERREKALDEKO JAUREGIA**: Villafranca de Gaytango Kondearen erosi zaio, 25.000 metro-kuadroko hespila barne. Herri-agiritokia eta Euskadi osoko Mikrofilmaketa-tegia finkatu dira bertan. Oinean, Euskarategi bat eratu da.

4.- **ERROTALDEKO JAUREGIA**: Valle-ko Kondearena zen. Kultura-Suztaketarako Bergarako Erakundeari emana, Murua Balzola Erakundeak. Bertan, Eskulan, Buztinlan, Irudilan, Eskultura, Marrazki eta Margogintza eta Burdinlan Eskola antolatuko da bertan.

Arte eta Eskulan-Eskola hau eratzeko, Eusko Jaurlaritzako Merkatariaritza-Sailaren eta Herriko Udalaren languntzak eskuratzeko-bideak egin dira.

1749.eko Abuztuaren 19an Udalak egindako bilkuran, "muchas graves ofensas a Dios u a las buenas costumbres del vecindario" aldentzeko asmoz, Erabaki batzuk hartu zituen, hara heltzen zirenek, askatasun edo askakeria egarriak eraginda, hirian ezegingarriak zirenak gauzatzen bait zituzten.

Lehen-lehengotan, gogokeria haize bat dariela ez dago ukatzerik; baina, bestalde, arrazoi kutsu apurtxo bat ere ba dutela uste dugu, norako ziren eta non ezarriko ziren kontutan hartzen badugu. Ondoren aipatzen ditugun erabakiak, gaztelaniaz emango ditugu, hizkuntza horretan bait dute beren graziatxoa eta piperminta.

Donato Gallastegi

## PAZKOETAKO URTEROKO JAIAK DIRELA BIDE, BERGARAKO HERRIKO JAI-BATZORDEAK ANTOLATU DITUEN FESTA ETA OSPAKIZUN EGITARAU OFIZIALA

### OSTIRALA, Hilak 20

#### *Arratsaldeko 8etan:*

Agirre Deunaren enparantzan, etxafleroz, ikurrinez, BIKTORIANATXO beheratuz eta Udal Eresatzak alaituz, herriko jaiei hasera emango zaie. Ondoren kalejira.

#### *Arratsaldeko 8,15 etan:*

Matxiategiko Poligonoan, Barraka-tokia zabalduko da.



#### *Gaueko 10,30 etan:*

NAFARROA ETA GIPUZKOAKO pilota-federazioen arteko txapelketa.

#### *Gaueko 11 etan:*

Agirre Deunaren enparantzan, dantzaldia, MIKEL HERZOG eta IZADI musikaldeak alaikide direlarik.

## LARUNBATA, hilak 21

### Goizeko 9etan:

III.MARRAZKI ETA MARGO SARI-KETA. Eskualde-mailan eta 14 urtetatik beherakoak parte har dezakete.

### Goizeko 10etan:

Eskuhartzaileak Bergararatzea. Hiritikako ibilaldia, herriaren historia eta dituen arte-baloren berri emanet. Eguardiko 12etan amaituko da Seminarioan. Bertan, EL-HUYAR ANAIEI ETA GARAICO HIS-TORIARI buruzko Erakusketa zabalduko da.

### Goizeko 10,30 etan:

Pentekoste-jaietako I KROSS-lehiaketa. Maila ezberdinenzako, herriko kaleetan zehar.



### Goizeko 11 etan:

AJEDREZA. Eskolarteko txapelketaren azken ekitaldia.

### Eguerdiko 13etan:

Harrera ofiziala Udaletxean, Pauko Oliver Baulny Irakasleak Hitzaldi bat emango duela.

### Eguerdiko 2 etan:

Errekalde jauregian, bazkaria.

### Arratsaldeko 4 etan:

AJEDREZA. Euskadiko taldekako Txapelketa.

### Arratsaldeko 4,30 etan:

Herriko Pilota-lekuau, izugarrizko ESKU-PILOTA Partiduak.

### Arratsaldeko 5,30 etan:

Agirre Deunaren enparantzan, umeentzako JAIALDIA. Aranzadi Ikastolako Antzerki-taldeak “Itsasontzi Txuri bat” ize-neko antzerkia plazaratuko du.



Ondoren: Buruhandi eta Erraldoiak. Eskusu japoniarak.

### Arratsaldeko 6 etan:

San Pedroko elizan, kontzertua.

1. XVIII garren mendeko musikaera. Esteban Elizondo Jauna izango da organujole.
2. Bergarako Abesbatzaren, Aritzeta Korralaren eta Udal-Eresbatzaren musika-ekitaldia, Migel Gonzalez Bastidaren Artezkaritzapean.

*Gaueko 10,30 etan:*

Martin Agirre enparantzan, dantzaldia,  
BRIES Musika taldea, alaibide delarik.



*Gaueko 11 etan:*

MOCEDADES musika-taldearen, MARIAN eta bere MARIATXIAK kide dituelarik, berarizko abestaldi jaialdia.



**IGANDEA, hilak 22**

*Goizeko 9etan:*

Herriko Txistularien goiz kalejira.

*Ordu berean:*

Bergarako taldekako AJEDREZ-txapelketa.

*Goizeko 9,45etan:*

Udal-Eresbatzaren kalejira.

*Goizeko 10etan:*

Ipintzako Herri-futbolzelaian, maila ezberdineng fultbol partiduak.



*Goizeko 11 etan:*

San Pedroko elizan, MEZA NAGUSIA.

*Eguerdiko 12,30etan:*

Martin Deunaren enparantzan, KONTZERTUA. Herriko Txistulariek eta Herriko Musika-Bandak eskuhartuko dute, honako ereski hauek joko dituztelarik:

### **HERRIKO TIXTULARIEK:**


Minueto	Raimundo Sarriegi
Aitona	José Antonio Erauskin

### **Herriko Musika-Bandak:**

Errondariak dantzari	
Euskal Martxa	Gabiola
L'Arlesienne	
Suitea	Bizet
Luis Alonsoren Ezkontza	
Intermedioa	Gimenez

### **Eguerdiko 1,30etan:**

Angiozar auzoan, Herri-Liburutegiaren inaugurazioa.



### **Arratsaldeko 4,30etan:**

ESKU-PILOTA partiduak.

### **Arratsaldeko 5'etan:**

CIA de Mariako Aretoan, antzerkia, ETERNO PARAISO-taldeek "El buey de los cuernos de oro" izeneko antzerkia emango duela.

### **Ordu berean:**

Agorrosingo futbolzelaian, BERGARA K.K eta ILINTXA K.E.-ren arteko futbol-partidua.

### **Arratsaldeko 6etan:**

Martin Deunaren enparantzan, DANTZA ASKATUERAKO ETA BINAKAKO EUSKADIKO VI TXAPELKETA.

Partehartzaileak: Hamalau urtetatik beherako gaztetxoak. Honako sari hauek emango dira:

1. saria 6.000 pta. eta garai ikurra.
2. saria 5.500 pta. eta garai ikurra.
3. saria 5.000 pta. eta garai ikurra.
4. saria 4.500 pta. eta garai ikurra.
5. saria 4.000 pta.
6. saria 3.500 pta.
7. saria 3.000 pta.

Eskuartzaile guztiak 2.000na pesetatako saria jasoko dute.

### **Arratsaldeko 7,30etan:**

EKAITZ musika-taldearekin, kalejira.



### **Gaueko 10etan:**

Martin Deunaren enparantzan, SUZKO ZEZENA.

### **Gaueko 10,30etan:**

Simon Arrieta enparantzan, 30 urtetatik 100 urtetarainoko gaztetxoentzat DANTZALDIA; KRYSOL orkesta izango da alaitzaile.

*Ordu berean:*

Martín Deunaren enparantzan, DANTZAL-DIA, EGAN musika-taldea alaikide delarik.

*Goizeko 3etan:*

GAU PASA, UDABERRI musika-taldea alaibide delarik.



**ASTELEHENA, hilak 23**

*Goizeko 7etan:*

Komenio kalean, TXOKOLATE-JANA, "Juven"-ek antolatuta.

*Goizeko 9etan:*

Gazttxoentzat eta langozamenduetan dau-denentzat, Ubera eta San Juan arteko erre-kastoan, amorrain-harrapaketa herri-lehiaketa.

*Goizeko 9etan:*

Agirre Deunaren enparantzan, XLVII PENTEKOSTE SARIA deituriko txirrindulari-lehiaketari hasera emango zaio.



**IBIBILDEA**

Bergara .....	-	9,30
5 joanetorri seihezbidez .....	30	10,19
Arrasate .....	40	10,35
Aretxabaleta .....	44	10,41
Arrasate .....	48	10,48
Bergara .....	58	11,04

Joanetorri 1 saihesbidez....	62	11,10
Oñati.....	75	11,31
Udana (521 metrotako garaia)	83	11,44
Legazpi.....	88	11,53
Deskarga (487 metrotako garaia)	94	12,02
Antzuola.....	98	12,09
Bergara.....	102	12,15
Joanetorri 1 saihesbidez....	107	12,23

*Goizeko 9,15etan:*


SOKAMUTURRA, herriko kaleetan zehar.

*Goizeko 10etan:*

TIROZKO PLATER APURKETAKO HERRI-LEHIAKETA.

Lekua: Mayc inguruko zelaian, Bergarakitik Arrasaterako errepidean.

Antolatzailea: Ollagorra Ehizi eta Arrantzu Elkartea.



*Eguerdiko 12,30etan:*

Martin Deunaren enparantzan, Herriko Musika Bandaren KONTZERTUA. Honako hauek entzun ahal izango dira:

“Artistaren Ametsa”

pasodoblea

Yuste

“Fausto”

Balleta

Gounod

“Baratzeko Poza”

Selezioa

Chueca

*Arratsaldeko 3,30etan:*

USAKUME BOTAKETAKO HERRI-LEHIAKETA Lekua: Bergarakitik Arrasaterako errepidean.

Antolatzailea: Ollagorra Ehizi eta Arrantzu Elkartea.

*Arratsaldeko 4,30etan:*

Eskuzko Pilota Partiduak.

*Arratsaldeko 6etan:*

Seminarioko jolaslekuau, HERRI KIROLAK



*AIZKOLARIAK:*

Alde batetik, Arria II eta Laskurain, bestaldetik, Mindegia eta Agirrezabal.

## EGINGO DUTEN LANA:

10 aldiz 100 kiloko bola jaso, kanako enbor bat eta bost kana erdiko ebaki. 45 ontzako egurra 10 aldiz moztu trontzakin eta 200 metro egin txingekin. Bikote bakoitza txanda libreat egingo du lana.

ARRIJA SOTZAILEAK

Guenatxo I 250 kiloko arriarekin egingo du bere saioa. Zelai bere aukerako arriekin jarriko du marca.

Laurak-bat

bere saioa egingo dute

Kostei



### *Arratsaldeko 8etan:*

Martin Deunaren enparantzan goizaldera arteko dantzaldia, NEKEZ musika-taldea alaikide delarik.

Gaueko 9etan:

SUZKO ZEZENA.

Egunean zehar, kalez-kale, bi TRIKITILARI bikote eta LOS INCANSABLES txaranga izango dira herri-alaibide.

ASTEARTEA, hilak 24

## **KUADRILEN EGUNA:**

Goizeko 9etan;

## Herriko Txistularien Goiz kalejira.

### *Goizeko 9,30etan:*

SOKAMUTURRA, herriko kaleetan zehar.

Eguerdiko 12etan:

"JUVEN" egoitzan, txistorra eta ardoa kuadrilentzat.



## *Eguerdiko 12,30etan:*

## Agirre Deunaren enparantzan, Aranzadi Ikastolako Dantzarien ekitaldia.

**Eguerdiko 1,30etan:**

Kuadrilen bilera Agirre Deunaren enparantzan. Ondoren, kalejira txarangarekin.

**Eguerdiko 2,30etan:**

**KUADRILEN BAZKARIA**



**Arratsaldeko 4,30etan:**

Eskuzko Pilota Partiduak

**Arratsaldeko 5etan:**

**Kuadrilen I ABESLEHIAKETA**

**Arratsaldeko 6,30etan:**

Agirre Deunaren enparantzan, **ZEZENAK**

**Arratsaldeko 8etan:**

Kuadrilen ardo-dastaketa, Txaranga alai-kide delarik.

**Gaueko 9,30etan:**

Agirre Deunaren enparantzan, goizaldera arteko **DANTZALDIA**, EGAN musikataldea alaibide delarik.

Egunean zehar, kalez-kale, bi **TRIKITILARI** bikote eta **LOS INCANSABLES** txaranga izango dira herri-alaibide.

**Gauerdiko 12etan:**

**BIKTORIANATXORI** azken agurra eta azken etxafleroketa.

**IGANDEA, hilak 29**

**HAURREN EGUNA**

**OHARRA:** Herri Jai-Batzordeak ez ditu bere gain hartuko, herriko jai-egunetan, Bergaran, axolagabekeriaz, inprudetziaz edo beste arrazoi batzurenengatik gerta daitezkeen istripuak.

**BERGARAKO ARMARRIA**

Bergarak, beste Udal batzuk bezala, bere Armarria eratu du, herriko etxebikainek dituztenetik zatikazko zerak jasoz: Giltzak Ariznoako Pedro Deunarenari, Izarra eta Ilargi Erdia Zabala Etxebikainarenari eta Mahaia Ozaetenari dagokio.

Era honetan, bi zatitan banatzkoa delarik, goiko zatiaren goi-aldean, Giltzen gurutzegune-gainean, Izarra darama eta, azpian Ilargi Erdia, zelai urdinean. Behe-zatian, zelai gorrian,urrez jantzitako hiru makilekin, mahaia du.

## *Saludo*

*Estas pocas líneas que tradicionalmente se utilizan para saludar el Pueblo al comienzo de sus Fiestas Patronales, me servirán esta vez como despedida nostálgica, pues han transcurrido ya los cuatro años que duraba nuestro mandato y como al Ocaso se le dedica un epitafio, sintiéndome poeta por un momento, resumiría así mi paso por la Alcaldía: Llegó y dijo. .... pero no todo lo que quiso decir Hizo... pero no todo lo que quiso hacer... y se fué*

*Que como siempre transcurran nuestras Pascuas en un ambiente de paz, amistad entre todos y buen humor, os desea con un fuerte abrazo colectivo el que ha sido vuestro Alcalde y ahora, como antes, un servidor del Pueblo.*

JOSE ANTONIO ZABALA

## **EL REAL SEMINARIO Y LOS DESCUBRIMIENTOS CIENTÍFICOS DEL SIGLO XVIII**

Nunca más oportuna que la fecha de conmemoración del Bicentenario del aislamiento del Wolframio por los Hnos. Elhuyar, para pergeñar unas líneas sobre la pequeña y gran historia de nuestro Seminario que inició su andadura el 29 de Marzo de 1593 cuando mediante Escritura otorgada por la dama genovesa Dña. Magdalena Centurión (Viuda de D. Agustín Spinola) instituye una manda o legado de 1.800 ducados para la fundación de un Establecimiento docente, pero dada la insuficiencia del Fondo, hubo que esperar hasta 1662 en que merced a la donación por D. Andrés de Madarriaga de 20.000 ducados pudo iniciarse la construcción del Colegio e Iglesia, tomando posesión de la misma los Padres Jesuitas que hasta aquel entonces habían regentado un Colegio en Oñate.

La Compañía de Jesús llevó a cabo su labor docente en Bergara durante un siglo aproximadamente ya que -según relata D. Rufino Menidiola- a las doce de la noche del día 2 de Abril de 1767 el Alcalde -que en aquella época Foral ostentaba también las funciones de Juez de la villa- D. Miguel José de Olaso, obedeciendo órdenes superiores, tuvo que cumplir el penoso deber de expulsar de la villa a los Jesuitas -al igual que lo fueron a nivel del Estado- cerrando el Colegio y produciendo con ello un vacío difícil de cubrir en el campo de la Enseñanza y concre-

tamente en el área de las Humanidades.

Por aquel entonces estaba en boga el movimiento llamado de La Ilustración que pretendía objetivos culturales, procedente del otro lado de los Pirineos y que en el País Vasco estaba representado por una serie de encumbrados caballeros, en Cultura y fortuna, muchos de ellos educados en el extranjero, que habitualmente leían la Encyclopédie de Diderot y d'Alembert y cuyo máximo exponente era Xabier María de Munibe e Idaíquez, Conde de Peñaflorida, nacido en Azkoitia el 23 de Octubre de 1729, y que, una vez terminada su formación educativa media y superior en el colegio de los Jesuitas de Toulouse, regresó con grandes inquietudes culturales y con deseos de ponerlas en práctica y fué en nuestra villa, con motivo de los festejos que preparó el Ayuntamiento para celebrar la obtención de una Bula Pontificia a su favor en relación con el pleito que sostenía con Beasain sobre el lugar de nacimiento de San Martín, donde se reunió el Conde con sus amigos -no hay que olvidar que su mujer era nacida en Bergara- y donde les expuso su idea de formar lo que luego sería la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, mientras el 11 de Septiembre de 1764 se representaba en la Sala Capitular de la Casa Consistorial "El Borracho Burlado"

operita tragicómica bilingüe cuyo autor era el Conde.

Como consecuencia de la expulsión de los Jesuitas, el Colegio permanecía vacío y el Ayuntamiento solicitó en 1768 al Estado el que se estableciera un Seminario al igual que los existentes en Europa y asumida la idea por la Sociedad de Amigos del País, ésta gestionó y consiguió la cesión Real a su favor del edificio que fué inaugurado con toda solemnidad el 4 de Noviembre de 1776 como Real Seminario para impartir Estudios Superiores con cátedras de Física, Química, Mineralogía y Metalurgia, sin olvidar las Humanidades.

